





abaildu 'erori'	«Aitaren begi abailduetan , orain, bonba ulukarien urradura odoltsuak pilatzen dira...»	(59)
abarrots 'zarata, hots nahasia'	«Patioko abarrotsak areagotu egin dira honako honetan.»	(55)
adabakindu 'adabakiz konpondu, bete'	«...atrioko harlauzen tarteak (...) zementuz (...) adabakinduak ...»	(79)
adeitsuki 'errespetu handiz'	«...bi kamarerak adeitsuki despeditu zaituzte...»	(113)
agian 'beharbada, apika, ausaz'	«...edo agian zabarraldi momentaneo dateke...»	(95)
ahalke 'lotsa'	«...beti makurtu ohi duk burua ahalkearen ahalkez.»	(39)
ahur 'esku barrua'	«...ukalondoak mahai gainean tinkatu, burua bi eskuen ahurrez sostengatu...»	(15)
ahuspez 'ahoz behera'	«...pretilaren kontra ahuspez erori eta hortza hautsi egin zitzaian...»	(13)
aienatu 'uxatu, aldendu'	«... aienatua da odol hodeia...»	(64)
aiene 'kexa, erosta'	«...so urrikalgarriak, intzirika, aieneka , heiagoraka zimurtzen zaizkie...»	(133)
alabaina 'hala ere, hala eta guztiz ere'	« Alabaina , une honetan amak (...) esan eta jaiki egin haiz...»	(9)
albaitero 'albaitaria, animalien sendagilea'	«... albaiteroa sartu huen ikuiluan...»	(47)
altzo 'magala'	«...katarata bat iduri (...) harri kozkor ilunen altzora , itsaso urdinak basatiki milizkatzen duen plaia bazter ezkutura jauzika.»	(75)
amildu 'jaitsi / erori'	«...mendi mazelak itsas bazterreraino amiltzen dira...»	(75)
andana 'taldea, multzoa'	«...armiarma sare erraldoiak, euli andana bat "Lucero"ren begi hilduratuen azal lodietan beti.»	(28)
antxieta 'antxeta, kaioa'	«... antxieta baketsuak zapalets-hondakin jale bihurtuko dira...»	(117)
areagotu 'gehitu'	«Patioko abarrotsak areagotu egin dira honako honetan.»	(55)
arotzeri lan 'arotz lana'	«... arotzeri lanetan aski trebatuak diren eskuek...»	(78)
arrenkuratsu 'kexuzkoa'	«...ferra astunek kaleko asfaltoan durundio arrenkuratsuak dagizkite.»	(27)
artesitu 'pitzatua, arrakaldua'	«...muraila sendo pitzatua, harresi artesitua ...»	(25)
ateri 'euririk ez deneko eguraldia'	«..." ateri balego sikira"...»	(81)
atetzar 'ate handia, albatea'	«...haizeak atetzar erdi itxiari daragion kurrinka.»	(49)
atxamarta 'oratzeko tresna'	«...antxoak diztiranteak (...) atun, hegaluze, hegamotoz, zimarroiaren borroka galdua atxamartak zakatzetatik heltzen dionean.»	(76)
atxitu 'harrapatu'	«...kaioak (...) korkoi txikiren bat atxitzen dute...»	(117)



aurren 'lehenengoa'	«...zotz batzuk ur lasterrean jarri [...] ea norena iristen zen aurrena ...»	(52)
ausiki 'kosk egin, haginka egin'	«Legatz fresko guria, isatsari ausikiz biribiltasun perfektuan...»	(59)
azpila 'erratilua'	« Azpila bete arrain hartu eta bahoia osaba Ferminen etxera.»	(68)
aztoratu 'arduratua, kezkatua'	«...horren aztoratua ikusten hau non galdetu egiten baitik ea...»	(97)
bafatu 'haizea indarrez bota'	«...sudur zuloak hanpatu eta gogor bafatzen du hortz-hagin lerrokada luzea erakutsiz.»	(32)
bakailau 'makailoa'	«... bakailau -isats bat, gedarrez zikin ez dadin plastiko batean bildurik...»	(10)
baldarki 'trakeski, dorpeki'	«...bi eskuez brageta lotzen dihardu baldarki .»	(69)
barrena 'zehir, gairi'	«... eta bidexka ezkutueta barrena abiatuko zarete hango bikoteen zelatari...»	(12)
barrunbe 'hutsunea, hurgunea'	«...orrazaren dzastada karrakelaren barrunbe beltzean...»	(134)
bazka 'janaria'	«...merkatuko idiak heriozko bazka hausnartzen...»	(63)
bederen 'behintzat, gutxienez'	«Aire pittin bat bederen sartzen da (...) gure patio hau zoko hertsia mehar bat baita...»	(9)
behebarru 'lehen solairuaren azpikoa'	«... behebarru zabal ilunetik hots metaliko oihartzundu bat...»	(52)
berri 'duela gutxi...'	«...izerdi lehortu berriaren gatz-geruza aurpegi-lepo-bekokian.»	(51)
betsein 'begi ninia'	«...aitaren betseinetan islaturik, hortxe: gorputz lerdana etzanik, eri zurrinak asfaltoan atzaparka...»	(59)
beztu 'beltz jarri'	«...ikazkinaren bekain beltzak, buzo urdin beztua ...»	(32)
bidexka 'bide zidorra'	«...eta bidexka ezkutueta barrena abiatuko zarete hango bikoteen zelatari...»	(12)
bikeztatu 'bikea edo uia eman'	«...oinak lohitzten ari zaizkik kila bikeztatuan , galipot mantxa itsaskorrak toailaz gogor igurtziz...»	(118)
binbilika 'mugimendu erritmikoa'	«...tren zaharraren binbilika ...»	(75)
bipil 'ausarta, kementsua, adoretsua'	«...nire haurtzaroko zaldi beltz bipila .»	(30)
bisuts 'haize eta euri edo elurrezko'	« Bisutsaren ulua San Telmoko aldapan behera...»	(31)
brintza 'izpia'	«...ilunabarreko argi brintzatan bi dizdira iheskor.»	(117)
burrunbada 'zaratotsa, urruma'	«...kafe-eiharaxken burrunbadak ...»	(10)
burusoilune 'ilerik gabeko uneak'	«...gizonezkoen burusoilune eta adats beltzetako brillantinaren gainera...»	(107)
dagi 'egiten du'	«...painelua atera du, eta (...) zintz gogor bat dagi ...»	(62)



damutu 'garbatu, damu izan zerbaitez'	«Eta zerbait damutzen bazait...»	(112)
deblauki 'bat-batean'	«Lehen hobeto egiten zenuen dantza (...) jende aurrean, deblauki ...»	(95)
desgogara 'nahigabez, disgustura, gaizki'	«Eta gelako sofa berdean desgogara sentitzen haiz...»	(13)
deslokatu 'lotu gabea, soltea'	«...betiko ohol deslokatuaren kirrinka...»	(115)
diztirante 'distiratsua'	«...antxo diztiranteak (...) atun, hegaluze, hegamotz, zimarroiaren borroka galdua atxamartak zakatzetatik heltzen dionean.»	(76)
doi-doian 'ozta-ozta'	«...eper presoaren kexu soraioa txor-txor mehe baten harian heltzen zaizue doi-doian .»	(55)
durundio 'oihartzuna, hots ozena'	«...ferra astunek kaleko asfaltoan durundio arrenkuratsuak dagizkite.»	(28)
durunditu 'oihartzunez hedatzen den hotsa'	«...belarrondokoak klase osoan durunditu du.»	(52)
dzarrastaka 'basoan kiribilean sartuz'	«... dzarrastaka likore nabar oretsuak berriro betetzen du kopa...»	(58)
ebatsi 'lapurtu, ostu'	«...mendirako makukotik ezkutuan ebatsitako liburua.»	(62)
eiharaxka 'ehotzeko tresna'	«...kafe- eiharaxken burrunbadak...»	(10)
elbarritu 'oztopatu, ezindu'	«...izena aipatze hutsak une batez oroimena elbarritu bailioen.»	(56)
emeki 'astiro, pausatuki'	«...dio aitak emeki , puruari tirakada luze bat eman ondoren...»	(19)
eragin 'mugitu'	«...leihoko maratila gogortuari eragin ondoren...»	(20)
erakusle 'atzamar bat'	«...baina ez lehen bezala erakusle -nagiaren artean...»	(47)
eratxi 'jaitsi'	«...begirada zoluko baldosa koadratuetara eratxiz ...»	(42)
erauntsi 'ekaitza'	«...nabarmenago dira jadanik kaleko erauntsiaren uluak baino...»	(79)
erauzi 'atera, sorterazi'	«...eguzki beroak zuhaitz-zelaiei erauzitako lurruna dakusak...»	(88)
eri 'atzamarra'	«...aitaren betseinetan isladaturik, hortxe: gorputz lerdena etzanik, eri zurrinak asfaltoan atzaparka...»	(59)
erkain 'atzamar gaina'	«... erkainak txokolatetz koipetu zaizkik...»	(50)
erpe 'atzaparra'	«...zintzurretan behera erpe hotz eta beroak.»	(59)
erpuru 'atzamar punta'	«...esku batetako erpuruaz beste eskuko ahurra ferekatzen du...»	(42)
erraldoi 'handi-handia'	«...armiarma-sare erraldoiak , euli andana bat "Lucero"ren begi hilduratuen azal lodietan beti.»	(28)
errekasto 'errekaxoa, latsa'	«...platerak erretiratzen ari da eta harraskara eramaten: plater zuriak eta natilazko errekasto horiak.»	(10)




erretilu 'bandeja'	«...kafe taza garbien zinkurin aristokratikoa amak alpakazko erretiluan ardura osoz pausatzerakoan.»	(37)
esku-zatar 'sorkia, sukalde-zapia'	«Arantxak esku-zatar koadro gorriduna atera du...»	(12)
eulitzar 'euli beltz burrunbaria'	«...beren presentzia ia ohartzina bihurtzen duten eulitzar setatiak...»	(59)
ezkel 'betokerra, begiak oker dituen'	«...beste familiako izeba ezkel horrek bere ateraldi traketsaz...»	(93)
farfail 'brodatuak dituen, hornitua'	«...oihal zuri farfail urre koloredun batez estaliko du kopoia...»	(108)
gailur 'gaina, tontorra'	«...eskerrak badela han, gailur -gailurrean (...) norbait...»	(25)
galburu 'gari-burua'	«...manteleko galburu txuri bordatueta...»	(46)
galipot 'nahastura beltz itsaskorra'	«... galipot mantxa itsaskorrek toailaz gogor igurtziz...»	(118)
ganga 'bobeda'	«Organoaren notak (...) hodi hautzestatuetatik gangara , gangatik behera nagiki lerratzen dira...»	(107)
gangar 'trauskila, itxura traketsekoa'	«...San Bizenteko atrio ondoan uzten zuen gurdi gangarra ...»	(59)
ganibet 'aiztoa, kutxiloa'	« Ganibet zorrotzaren ahoa arrainaren bizkarra zaramazkatzen hasten da...»	(66)
garo 'ira'	«...zorua eta paretak garo sikuz eta lastoz estalirik...»	(15)
garun 'burmuina'	«Odol boladak garunetan taupadaka...»	(114)
gedar 'kearen gai beltz koipetsua'	«...bakailau-isats bat, gedarrez zikin ez dadin plastiko batean bildurik...»	(10)
geruza 'azaltxoa'	«...izerdi lehortu berriaren gatz- geruza aurpegi-lepo-bekokian.»	(51)
godalet 'basoa, edalontzia'	«... godalet dantzaren azken partea...»	(91)
gori 'bero-beroa eta gorri kolorekoa'	«...koroa gori bat eratzen du "Montecristo"aren tontorrean...»	(11)
goroldio 'oroldioa'	«Huntzez eta goroldioz estalitako tunbak...»	(13)
guri 'biguina'	«Legatz fresko guria , isatsari ausikiz borobiltasun perfektuan...»	(59)
gurtardatz 'gurdi ardatza'	«Bi gurtardatzetatik askatu du zaldia bere jabeak eta badarama ikuilura zingulu-zangulu...»	(32)
haizagailu 'haizeztatzeko aparailua'	« Haizagailua motelki ari da, ezin du (...) ke eta lurrin guztia irentsi.»	(69)
hanpatu 'puztu, ireki'	«...sudur zuloak hanpatu eta gogor bafatzen du hortz-hagin lerrokada ahaltzua erakutsiz.»	(32)
har 'zizarea, kotxoa'	«Bat-batean har nimiño baten karraskada somatu huen...»	(121)
harrapakin 'harrapagaia, ehizagaia'	«... harrapakinak —zilar distirazko harrapakin malguak— noiz mokokatuko zain...»	(29)



harraska 'harria, sukaldeko tresna'	«...platerak erretiratzen ari da eta harraskara eramaten: plater zuriak eta natilazko erreka horiak.»	(10)
harresi 'harrizko horma'	«...muraila sendo pitzatua, harresi artesiua...»	(25)
hausnartu 'jan / gogoetatu'	«...merkatuko idiek heriozko bazka hausnartzen ...»	(63)
haztatu 'emeki sakatu'	«Aitak purua haztaten du, jiraka darabil eta fruitioz usaintzen.»	(10)
heiagora 'deiadarra, garrasia'	«...so urrikalgarriak, intzirika, aieneka, heiagoraka zimurtzen zaizkie...»	(133)
herdoildu 'ugertu, oxidatu'	«...burdinazko langa herdoildua ...»	(14)
herra 'gorrotoa'	«...Xalbador ere (...) negar zotinka eta herraz beterik...»	(17)
herrestatu 'hedatu, barreiatu'	«... "ilargiaren begirapéeean" herrestaten zuen melodia mikrofonotikako boz eztiak...»	(91)
hilduratu 'sorgortu, ezindu'	«...armiarma-sare erraldoiak, euli-andana bat "Lucero"ren begi hilduratuen azal lodietan beti.»	(28)
hits 'tristea'	«"Lucero"ren betazal lodietara zurrunbilatzen ziren mandaeuli odol xurgatzaileak, ikuilu hits zaharkituan.»	(59)
hodi 'tuboa'	«Organoaren notak (...) hodi hautzestatuetatik gangara, gangatik behera nagiki lerratzen dira...»	(107)
honez gero 'dagoeneko, jadanik'	«...ziur nago honez gero zeharo txunditurik daudela gure bozen mardultasunaz, aita.»	(79)
horratik 'ordea'	«—Han uste genian, horratik , gureak egin zuela...»	(44)
hozkirri 'freskoa'	«...zirrikietatik iragazten den haize hozkirriaren promesa...»	(115)
huntz 'huntzorri, aihen'	« Huntzez eta goroldioz estalitako tunbak...»	(13)
hurbildu ahala 'hurbiltzen den heinean, neurrian'	«...kontakizunaren gailurrerantz hurbildu ahala ...»	(44)
iduri 'ematen du, antzera'	«...katarata bat iduri (...) harri kozkor ilunen altzora, itsaso urdinak basatiki milizkatzen duen plaia bazter ezkutura jauzika.»	(75)
igeltsu 'karearen sulfato hautsa'	«... "Via Crucis"aren igeltsu errepintatuzko irudiak...»	(107)
igurtzi 'indarrez ferekatu'	«...oinak lohitzten ari zaizkik kila bikeztatuan, galipot mantxa itsaskorrek toailaz gogor igurtziz ...»	(118)
ikuilu 'gorta'	«...albaiteroa sartu huen ikuiluan ...»	(47)
ilinti 'egur zati erdi errea'	«...alfonbra gainetik ilintia jasotzen ari...»	(108)
ilunabar 'iluntzea'	«... ilunabarreko argi brintzatan di dizdira iheskor.»	(117)
imintzio 'keinua, jestua'	«...irribarrea imintzio mingots bihurtu zaizu...»	(35)
intzirika 'garrasika'	«...kaian amarraturiko barkuak marruz eta intzirika ari dira...»	(28)




iragazi 'filtratu'	«Arratsaldeko eguzki ahula iragazten da sabailehotik behera...»	(68)
iratzarri 'esnarazi'	«...siestan dauden aita-amak ez iratzartzearren ...»	(111)
irauli 'gainezkatu'	«...eltzetik irauli den saltsa-lohidura garbitu nahirik.»	(19)
irrika 'gogo bizia'	«...heure artean aita espiritualaren hitzei irrikaz jarraituz...»	(101)
isats 'buztan'	«...bakailau- isats bat, gedarrez zikin ez dadin plastiko batean bildurik...»	(10)
itaizur 'kanpoko euri ur tanta'	«Terrazako tamarizak eta berauen adar negartiak: huri-itaizur etengabea zerien.»	(81)
itsaskor 'itsasten dena'	«"Catón"aren pasta itsaskorrak mantel lekatsuaren gainean.»	(27)
itzulinguruka 'bueltake'	«...hor dabilzik itzulinguruka , jauzika...»	(29)
jauzika 'saltoka'	«...hor dabilzik itzulinguruka, jauzika ...»	(29)
jenero 'salerosteko gaia, merkantzia'	«Behin baino gehiagotanhondatu zaio makina bat jenero Amaya dendariari.»	(51)
jorratu 'arrastelatu, landu'	«...buruko soilunearen gainetik pasatzen du oroitzapenak jorratu nahian.»	(12)
jostorratz 'josteko orratza'	«... jostorratz baten ziztada bekokiaren ezker aldean ...»	(31)
kamuts 'ez zorrotz'	«...labaina baten aho kamutsaz bihotz bat marrazten duk...»	(14)
kanpo eder, etxe kalte 'kanpokoentzat eskuzabal,	«...agian zu ere " kanpo eder, etxe kalte " ote zara?»	(95)
karrakela 'magurioa, itsas barraskilotxo'	«...orrazaren dzastada karrakelaren barrunbe beltzean...»	(134)
kazkabar 'harri, txingorra, inetasia'	«... kazkabarrak gogor erasotzen dio.»	(28)
keadar 'ke bolada'	«Laster erasotzen dik, ordea, keadar lodi batek.»	(9)
kinkun 'hautsia'	«...aitaren baritono boz polit apur bat kinkuna ...»	(73)
kirats 'hatsa'	«...simaur usaina, arrain kajetako ezkama ustelen kiratsa ...»	(27)
kirrinka 'soinu bizia'	«...haizeak atetzar erdi itxiari daragion kirrinka ...»	(49)
koipetu 'lohitu, zikindu'	«...erkainak txokolatez koipetu zaizkik...»	(50)
korkoi 'arrain mota'	«...kaioak (...) korkoi txikiren bat atxitzen dute...»	(117)
koroa 'biribil, zirkulu'	«... koroa gori bat eratzen du "Montecristo"aren tontorrean...»	(11)
korrokoildu 'errementatua'	«...jendeak sila korrokoilduetatik altxatzean sortzen duen zarata.»	(98)



kraskatu 'hautsi, eten'	«...oraindik ez da ritoa hasi, aitari boza kraskatu egin baitzaio.»	(34)
kukubilka 'makurtuta'	« Kukubilka jartzen haiz eskua zabalik.»	(29)
kulunkari 'mugimenduan'	«...bandera nimiño batzuk haize epelean kulunkari ...»	(49)
labaina 'kutxilo txiki zorrotza'	«... labaina baten aho kamutsaz bihotz bat marrazten duk...»	(14)
lagun hurko 'norberaren hurrengoa'	«...heure borrokak garaitzeko modurik onena lagun hurkoa maitatzea dela...»	(101)
laineza 'jarrera lotsagabe xamarra'	«...hori da gaizki hitz egiteko laineza darabiltzuna gaur!»	(45)
lakar 'latza'	«Zure esku lakar horiek...»	(76)
langa 'trabesa, langeta'	«...burdinazko langa herdoildua...»	(14)
lardaskatu 'aldrebestu'	«...hain arduratsuki orraztu huen ilea lardaskatuz ...»	(80)
larrumintz 'azal fina'	«...aurpegi eta txorkatiletako larrumintz zuri matea...»	(112)
lasto 'zulodun zurtoina, hondakina'	«...zoria eta paretak garo sikuz eta lastoz estalirik...»	(15)
lau 'leuna'	«...muskui luak daude untiaren kasko laura itsatsirik...»	(116)
lausotu 'lainotu'	«...derrotaren mintz horixka batek lausotutako begiak...»	(35)
lauza 'harri laua'	«...plazaren lautadan marmolezko lauzak zoruan...»	(17)
lekatsu 'likitsua, zikina'	«"Catón"aren pasta itsaskorrek mantel lekatsuaren gainean.»	(27)
lerratu 'iragan'	«Organoaren notak (...) hodi hautzestatuetatik gangara, gangatik behera nagiki lerratzen dira...»	(107)
linburto 'murgildu'	«...aitaren begiak kafe tazarantz linburtzen dira...»	(35)
lipar 'une, ereti, momentu'	«...eta lipar batez jaso ditu kristal puskak...»	(95)
lirdingatsu 'likitsua'	«...ogia ardotan bustitzen du (...), ogi zati more lirdingatsua ...»	(39)
lizundu 'zikin, lohi'	«...patio lizunduaren paretetako pitzatuei darien sargori hezearekin nahasia.»	(9)
logaletu 'loguratu'	«..."zer-zer" galdegiten ditek haren begi logaletuek ...»	(15)
lohitu 'zikindu'	«...oinak lohitzen ari zaizkik kila bikeztatuan, galipot mantxa itsaskorrek toailaz gogor igurtziz...»	(118)
lotsaizun 'lotsa, herabe'	« Lotsaizunaren gorritasuna berritzen zaik masailetan...»	(80)
luba 'kaxa'	«...antxoan zilarrezko dizdirak untzietako lubetan ...»	(26)




maingu 'beso gabe'	«...besagainetik behera maingu kapitaina ere...»	(14)
makina bat 'ugari, asko'	«Behin baino gehiagotan hondatu zaio makina bat jenero...»	(51)
makulu 'gaixoen makila'	«...sekulako esfortzuak egiten ditu bere makuluetan apoiatuz...»	(99)
malgu 'biguina'	«...harrapakinak zilar distirazko harrapakin malguak — noiz mokokatuko zain...»	(29)
mandaeuli 'ezpara'	«"Lucero"ren betazal lodietara zurrunbilatzen ziren mandaeuli odol xurgatzaileak, ikuilu hits zaharkituan.»	(59)
maratila 'txaramela, krisketa'	«...leihoko maratila gogortuari eragin ondoren...»	(20)
mardultasun 'sendotasuna, ozentasuna'	«...ziur nago honez gero zeharo txunditurik daudela gure bozen mardultasunaz , aita.»	(79)
marmara 'berbots isil-nahasia'	«...baina harraska ondoko marmara ez dirudi berehalakoan atertuko denik.»	(11)
marru 'orroea'	«...kaian amarraturiko barkuak marruz eta intzirika ari dira...»	(28)
maskurtsu 'maskurrez betea'	«...arrantzale esku maskurtsuak ...»	(73)
mazela 'malda'	«...mendi mazelak itsas bazterreraino amiltzen dira...»	(75)
mehar 'estu'	«...gure patio hau zoko hertsia mehar bat baita...»	(9)
mikatz 'samina, mingotsa'	«...horregatik amiltzen da orain aulki gainera irribarre mikatz batez ...»	(96)
milizkatu 'miazkatu'	«...katarata bat iduri (...) harri kozkor ilunen altzora, itsaso urdinak basatiki milizkatzen duen plaia bazter ezkutura jauzika.»	(75)
mingots 'desatsegin, garratz'	«...irribarrea imentzio mingots bihurtu zaizu...»	(35)
mintz 'azal fina'	«...derrotaren mintz horixka batek lausotutako begiak.»	(35)
moko 'tontorra'	«...Ernioaren moko zapala (...) Errezilgo zelai naharoak...»	(16)
mokokatu 'mokoa sartu, harrapatu'	«...harrapakinak —zilar distirazko harrapakin malguak— noiz mokokatuko zain...»	(29)
morantza 'more kolorekoa'	«...ardoak utzi duen mantxa morantza.»	(34)
murtxika-hots 'masteekatze-hotsa'	«...jan-edanaren zurrut eta murtxika-hotsak .»	(69)
muskuilu 'molusku oskolduna'	«... muskuiluak daude untiaren kasko laura itsatsirik...»	(116)
mutil kozkor 'txikitan'	«...barandilako barraren gainean ibiltzen ginen ekilibriotan mutil kozkorretan .»	(78)
muxin egin 'negar mainak egin'	«...janaririk goxoenak ere jan nahi ez eta muxin eginda .»	(56)
nabar 'kolore iluna'	«...dzarrastaka likore nabar oretsuak berriro betetzen du kopa...»	(58)



nagi 'atzamarretako bat'	«...baina ez lehen bezala erakusle- nagiaren artean...»	(47)
nagiki 'motelki, lasaiki, emeki'	«Organoaren notak (...) hodi hautzestatuetatik gangara, gangatik behera nagiki lerratzen dira...»	(107)
naharo 'zabal'	«...Ernioren moko zapala (...) Errezilgo zelai naharoak ...»	(23)
nardagarri 'higuingarria'	«...putre nardagarrien mokokadak sabeleko haragia urratzen...»	(117)
nasa 'kaia, portua'	«...untzietatik nasara eskuz esku pasatzen zituzten otarreetan.»	(26)
nimiño 'ttipia'	«Bat-batean har nimiño baten karraskada somatu huen...»	(119)
oholtza 'tarima'	«Frailea oholtzara igo da...»	(50)
oihartzundu 'oihartzun bihurtutakoa'	«...behebarru zabal ilunetik hots metaliko oihartzundu bat...»	(52)
olagarro 'hamarratza'	«...bere beso luzeez arteria eta zain guztiak erauzten ari zaian olagarroa ...»	(122)
oldartu 'indarrez inguratu, eraso'	«Itsasoz eta lurrez setiatua eta oldartua Urgull mendia ...»	(25)
olde 'bolada, multzo'	«...goitik behera blaitzen hauen ur garden oldea ...»	(117)
oratu 'eutsi, heldu'	«...arranoaren hego hedatuei oraturik : Ramontxo.»	(14)
oretsu 'lodia'	«...dzarrastaka likore nabar oretsuak berriro betetzen du kopa...»	(58)
orpo 'oinaren atzekaldea'	«...oinen puntan egin beharra dago, orpoz lurrik ikutu gabe...»	(114)
ospel 'azkordina'	«Belarriak igurzten dituk: bihar ospelak seguru.»	(88)
otarre 'otzarea'	«...untzietatik nasara eskuz-esku pasatzen zituzten otarreetan .»	(26)
otordu 'jatordua'	«...errezatzen dik gure amak otorduak hasi baino lehen...»	(24)
ozenagotu 'indartsuago, ozenago bihurtu'	«...eper presoaren kanta (...) ozenagotu egin dela ere esan liteke.»	(62)
papur 'mamia'	«...ogi papurrak eman ohi zizkien.»	(25)
piper potoa 'bandera espainiarra'	«Batuetan piper potoa jartzen ziaten jendea engainatuko zutelakoan, baina denok bagenekien haiek ez zirela espainolak.»	(36)
pitzadura 'arraildura, arrakala'	«...patio zokoaren paretako pitzadura eta errakala lizunduak.»	(62)
poxi 'eskutadotxo'	«...intzentsua ari da botatzen (...) bat, bi, hiru poxi bota ditu.»	(75)
pretil 'ertz, hegal'	«... pretilaren gainean eserita egonen dira txutxumutxuka zuei begira etahorrek guztiz asaldatu hau.»	(13)
prezeski 'zehazki'	«... prezeski esanda —dio profesoreak—...»	(16)



putzil 'petrala'	«Asko dakin hik, neska putzil horrek!»	(57)
putre 'saia'	«... putre nardagarrien mokokadak sabeleko haragia urratzen...»	(117)
sabaileiho 'sabai edo teilatuko leihoa'	«Arratsaldeko eguzki ahula iragazten da sabaileihotik behera...»	(68)
sargori 'eguraldi bero itogarria,sapa'	«Gaurko sargoriak zura dilatatu eta nahiko lan leiho demontre hau irekitzen...»	(9)
sarkor 'erraz sudurreratzen dena'	«...besteetan bezain sarkor iristen gure sudurretara.»	(10)
setati 'temati, hisiati'	«...beren presentzia ia ohartzina bihurtzen duten eulitzar setatiak ...»	(59)
simaur 'satsa, ongarria'	«... simaur usaina, arrain kajetako ezkama ustelen kiratsa...»	(27)
so 'begirada'	«... so urrikgarriak, intzirika, aieneka, heiaigoraka zimurtzen zaizkie ...»	(133)
soraio 'nagia, alferra'	«...eper presoaren kexu soraioa txor-txor mehe baten harian heltzen zaizue doi-doian.»	(55)
suspergarri 'bizgarri'	«Lehenengo inpresioa nahiko suspergarria .»	(9)
tamalez 'zoritzarrez'	«...baina, tamalez , mahai gainean pausatzen da errautsik gehiena.»	(46)
tarteka-marteka 'apurka-apurka'	«...tazakada astiro-astiro zurruputzen du tarteka-marteka .»	(33)
taupadaka 'kolpeka'	«Odol boladak garunetan taupadaka ...»	(114)
tinkatu 'lotu, jarri'	«...ukalondoak mahai gainean tinkatu , burua bi eskuen ahurrez sostengatu...»	(15)
trakets 'dorpe, baldar'	«...beste familiako izeba ezkel horrek bere ateraldi traketsaz ...»	(93)
trinko 'batu'	«...usainak, zein zein den bereizten nekeza gertatzen den uholde trinko batean.»	(9)
ttualdi 'txistua, ttua'	«...lurrera ezpain ertzetik ttualdi bat boteaz...»	(17)
txatxukeria 'lelokeria'	«...horrelako txatxukeriak baino ezer inportanteagorik ez balu...»	(42)
txilibitu 'txistu'	«...guardaren txilibitu -boz zolia...»	(17)
txingar 'puska gorria'	«...errautsarekin batera puruaren txingarra ere erori egin baitzaio.»	(46)
txirtxilatu 'zirtzilatu, txiki-txiki egin'	«...baldosaren kontra txirtxilatu da gure basoa...»	(92)
txorkatil 'orkatila'	«...aurpegi eta txorkatiletako larrumintz zuri matea...»	(112)
txunditu 'harritu, liluratu'	«...ziur honez gero zeharo txunditurik daudela...»	(79)
txutxumtxuka 'marmarka, ahapeka aritu'	«...pretilaren gainean eserita egonen dira txutxumtxuka zuei begira eta horrek guztiz asaldatuko hau.»	(13)



uhaleria 'uhalezko tresneria'	«...txapel eta uhaleria beltzak...»	(17)
uhinurrategi 'uhinak urratzeko horma'	«...Paseo Berriko uhinurrategiaren babesa gaudituz itsasoa...»	(52)
uko egin 'alboratu, ez onartu, ukatu'	«... uko egin behar diogula horrelako ambienteetako zabarkeriari.»	(112)
ulu 'uhuria, xilioa'	«...nabarmenago dira jadanik kaleko erauntsiaren uluak baino...»	(79)
ulukari 'xixtukaria, oihukaria'	«Aitaren begi abailduetan, orain, bonba ulukarien uradura odoltsuak pilatzen dira...»	(59)
unziotsu 'koipetsua, likitsua'	«...eten gabe beherantz datorren marea unziotsua ...»	(107)
urkoi 'urezkoa, biguina'	«...belaun azpietan flakezia urkoi bat sentitzen duk...»	(40)
urrikalgarri 'gupidagarri, pena ematekoa'	«...so urrikalgarriak , intzirika, aieneka, heiagoraka zimurtzen zaizkie...»	(133)
urruma 'hotsa'	«...baina bat-bateko urruma batek boza eten egiten dio...»	(34)
zabarkeria 'baldarkeria, narraskeria'	«...uko egin behar diogula horrelako ambienteetako zabarkeriari. »	(112)
zabarraldi 'nahasmendu'	«...edo agian zabarraldi momentanea dateke...»	(95)
zabuka 'alde batetik bestera'	«...kopa barruan "cognac" a zabuka ibili da une batez...»	(35)
zaildu 'gogortu'	«...gizon mehearen aurpegi zimur zaildua ...»	(92)
zain 'odol hodia'	«...bere beso luzeez arteria eta zain guztiak erauzten ari zaian olagarroa...»	(122)
zakatz 'arrainen arnas-zuloguneak'	«...antxoak diztiranteak (...) atun, hegaluze, hegamotoz, zimarroien borroka galdua atxamartak zakatzetatik heltzen diorean.»	(76)
zaldi-motots 'ile korapiloa'	«...Maiteren ile beltz zaldi-mototsean bildua...»	(73)
zalu 'arina, soltea'	«...andre haren ibilkera zalu zuengana hurbiltzean...»	(31)
zantzu 'errainua, dizdira'	«...begi batez egin dian keinuan halako konplizidade harro baten zantzua ...»	(11)
zapal 'lau, ez zorrotza'	«...Ernioren moko zapala ...»	(16)
zapalets 'arrain mota bat'	«...antxieta baketsuak zapalets -hondakin jale bihurtuko dira...»	(117)
zarramazkatu 'zarataz zatitu, ebaki'	«Ganibet zorrotzaren ahoa arrainaren bizkarra zarramazkatzen hasten da...»	(66)
zartatu 'printzatu, arraildu'	«...zure esku handi zartatu horiek, hegan...»	(76)
zeharo 'guztiz, erabat'	«...ziur nago honez gero zeharo txunditurik daudela gure bozen mardultasunaz, aita.»	(79)
zingira 'lakua'	«...hire aita (...) keadar lodizko zingiran igeri, haragi kiskalizko itsasoan itota.»	(56)



zingulu-zangulu 'zibuka, kulunkatuz'	«Bi gurtardatzetik askatu du zaldia bere jabeak eta badarama ikuilura zingulu-zangulu... »	(27)
zinkurin 'soinu berezia'	«...kafe taza garbien zinkurin aristokratikoa amak alpakazko erretiluan ardura osoz pausatzerakoan.»	(37)
zintz egin 'mukiak atera'	«...painelua atera du, eta (...) zintz gogor bat dagi...»	(62)
zintzur 'eztarrí'	«... zintzurretan behera erpe hotz eta beroak.»	(59)
zipitzik ere 'ezertxo ere, tutik ere'	«...nola ez duala zipitzik ere ulertzen?»	(109)
zirrikitu 'bitartea'	«...ozta-ozta sar daiteke argirik (...) zirrikituetatik... »	(48)
ziztada 'eztenkada'	«...jostorraz baten ziztada bekokiaren ezker aldean...»	(31)
zoli 'errime'	«...guardaren txilibitu-boz zolia... »	(17)
zotz 'palutxoa'	«... zotz batzuk ur lasterrean jarri (...) ea norena iristen zen aurrena ...»	(52)
zuez landa 'zuetatik aparte, kanpo'	«Eta irlan ez dago zuez landa beste inor (...)»	(134)
zume 'mihimena'	«Sukaldeko txoko horretan aitonaren zumezko kadira zaharra...»	(38)
zurda 'ile lodia, luzea, gogorra'	«... zurda luzeak lepoaren alde banatara isurtzen zaizkio...»	(32)
zurrun 'gogortua'	«...aitaren betseinetan isladaturik, hortxe: gorputz lerdena etzanik, eri zurrunak asfaltoan atzaparka...»	(59)
zurrunbilatu 'zurrunbiloan bildu'	«"Lucero"ren betazal lodietara zurrunbilatzen ziren mandaeuli odol xurgatzaileak, ikuilu hits zaharkituan.»	(59)
zurrapatu 'xurgatu, edan'	«...tazakada astiro-astiro zurrapatzen du tarteka-marteka.»	(33)
zurrut 'edanaren hotsa'	«...jan-edanaren zurrut eta murtxika-hotsak.»	(69)
zurtsare 'zurezko sarea'	«Etzan egiten zarete kubieta gaineko zurtsarean... »	(118)